Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko uztailaren 17a, osteguna — 136 — Jueves, a 17 de julio de 2025

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA

*Ingurumen inpaktuaren txostena, Lazkaoko 8. poligonoko 139. lurzatian Arraseko mozketa bidezko baso aprobetxamenduarena.*

1. *Aurrekariak.*

2024ko urriaren 3an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren barneko Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak jakinarazi zion Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari ezen Lazkaoko udal mugarteko 8. poligonoko 139. lurzatian basoa arraseko mozketa bidez aprobetxatzeko baimen eskaera jaso zuela. Eskaerak zehazten duenaren arabera, moztu nahi diren lurzatiak Aralarko Parke Naturalean daude, eta urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoak babestutako eremuetan. Orotara, 23,8 ha hartzen dituzte.

Horri dagokionez, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak, ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar zaien proiektuen artean, hauek sartzen ditu: «Espezie exotikoak dituzten birpopulaketak eta basomasen mozketak, 5 hektareatik gorako azaleran, katalogatutako fauna- eta flora-espezieen kudeaketa-planetan ezarritako interes bereziko eremuei, interes komunitarioko habitatei eta plan hidrologikoek babestutako eremuei eragiten dietenean» (II.E eranskineko 1.e apartatua). Beraz, mozketak ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua eskatzen du, eta prozedura hori Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 45. artikulutik 48. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera egin behar da.

Prozedura horretan oinarrituta, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 46. artikuluan zehaztutako kontsulten izapidea egin ondotik, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen inpaktuaren txostena egitea. Txosten horretan, III. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorriz eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, argituko da proiektuak ondorio nabarmenak eragin ote ditzakeen ingurumenean, eta, beraz, ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozeduraren mende jarri behar den ala ez, txosten horretan ezartzen diren zehaztapenei jarraikiz.

Horretarako, baimen eskaerarekin batera, mozketaren sustatzaileak proiektuaren ingurumen dokumentu bat aurkeztu du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 45. artikuluak eskatzen duen bezala. Jasotako dokumentazioa aztertu ondoren, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak, espedientea behar besteko judizio elementuekin ebatzi ahal izateko, sustatzaileari jakinarazten dio beharrezkoa dela bidalitako ingurumen dokumentazioa zenbait alderditan osatzea.

2024ko abenduaren 19an, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari jakinarazi zion jaso dela ingurumen dokumentua, azken zuzendaritza horrek eskatutako zuzenketekin. Ondorioz, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2024ko urtarrilaren 15ean abiarazi zuen

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD

*Informe de impacto ambiental del aprovechamiento forestal por Matarrasa en parcela 139, polígono 8 de Lazkao.*

1. *Antecedentes.*

Con fecha 3 de octubre de 2024, El Servicio de Montes y Gestión de Hábitats del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa comunica a la Dirección General de Administración Ambiental la recepción de una solicitud de autorización de aprovechamiento forestal por matarrasa en la parcela 139, polígono 8 del término municipal de Lazkao. La solicitud señala que las parcelas en las que se pretende realizar la corta se ubican en el Parque Natural de Aralar y en zonas protegidas por el Plan Hidrológico del Cantábrico Oriental aprobado por Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, y que abarcan una superficie de 23,8 ha.

A este respecto, la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, introduce, entre los proyectos que deben someterse a evaluación de impacto ambiental simplificada, las «Repoblaciones con especies exóticas y talas de masas forestales en una superficie superior a cinco hectáreas cuando afecten a áreas de interés especial establecidas en los planes de gestión de especies de fauna y flora catalogadas, a hábitats de interés comunitario y a zonas protegidas por los planes hidrológicos» (apartado 1.e anexo II.E). Por tanto, la corta se encuentra sometida al procedimiento de evaluación de impacto ambiental simplificada, el cual debe efectuarse de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 45 a 48 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental.

En base a dicho procedimiento, tras la realización del trámite de consultas especificado en el artículo 46 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, corresponde a la Dirección General de Administración Ambiental emitir el informe de impacto ambiental, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo III y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se determine si el proyecto puede producir efectos significativos sobre el medio ambiente, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación de impacto ambiental ordinaria, o no los tiene en los términos que se establezcan en dicho informe.

A estos efectos, junto con la solicitud de autorización, el promotor de la corta aporta un documento ambiental del proyecto, tal y como exige el artículo 45 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental. Analizada la documentación recibida, la Dirección General de Administración Ambiental, de cara a poder resolver el expediente con los elementos de juicio suficientes, comunica al promotor de la necesidad de completar la documental ambiental remitida en una serie de aspectos.

El 19 de diciembre de 2024, el Servicio de Montes y Gestión de Hábitats comunica a la Dirección de Administración Ambiental que se ha recibido el documento ambiental con las correcciones solicitadas por esta última dirección. En consecuencia, la Dirección de Administración Ambiental inicia el 15 de enero de 2024,

EK\CV GAO-I-2025-05264

prozedura, eta, hasiera horretan, kontsultak egin zitzaizkien ukituriko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, eta haien eskura jarri zuen proiektuaren ingurumen dokumentua.

Jarraian, aurkeztutako dokumentazioa eta kontsulta aldian jasotako erantzunak eta txostenak aldez aurretik aztertu ondotik, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2025eko martxoaren 3an eskatu zion Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiari, Aralarko Parke Naturalaren Kudeaketa Organoa den aldetik, eman zezala txostena, argitzeko ea bateragarria den proiektua ildo horretan 168/1994 Foru Arauan eta Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremuari buruzko 84/2016 Dekretuan ezarritako erregulazio orokor eta zehatzekin.

2025eko maiatzaren 26an, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzak jakinarazi zuen baimendu daitekeela eskatutako arraseko mozketa, betetzen baitu 168/1994 Dekretuaren 11. eta 25. artikuluetan ezarritakoa.

2. *Egindako kontsultak.*

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak kontsulta egin die ukituriko administrazio, pertsona eta erakunde interesdunei, eta haien eskura jarri du sustatzaileak bidalitako dokumentazioa:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

— Natura Ingurunearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Lazkaoko Udala.

— Ihobe.

— EEE (Energiaren Euskal Erakundea).

— URA Uraren Euskal Agentzia.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.

— Gipuzkoako Ur Partzuergoa.

— Goieki (Goierriko Garapen Agentzia).

— Goimen.

— Aranzadi Zientzi Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Gipuzkoako Ekologistak Martxan talde ekologista.

— Itsas Enara talde ornitologikoa.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).

— EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).

— Gipuzkoako Mendizale Federazioa.

el procedimiento mediante la realización de las consultas a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas, poniendo a su disposición el documento ambiental del proyecto.

Posteriormente, tras el análisis preliminar llevado a cabo de la documentación aportada y de las respuestas e informes recibidos en el periodo de consultas, el 3 de marzo de 2025, la Dirección de Administración Ambiental requiere a la Dirección General de Montes y Patrimonio Natural que, como Órgano Gestor del Parque Natural de Aralar informe sobre si el proyecto es compatible con las regulaciones genéricas y concretas que, al respecto, se establecen en el PORN -Decreto 168/1994- y en el Decreto 84/2016 de la ZEC de Aralar.

Con fecha 26 de mayo de 2025, La Dirección de Montes y Patrimonio Natural informa que, se puede autorizar la matarrasa solicitada ya que cumple lo establecido en los artículos 11 y 25 del Decreto 168/1994.

2. *Consultas efectuadas.*

La Dirección General de Administración Ambiental ha consultado a las siguientes administraciones, personas e instituciones afectadas o interesadas, poniendo a su disposición la documentación remitida por el promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Montes y Medio Natural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Agricultura y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

— Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio Climático.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Ayuntamiento de Lazkao.

— Ihobe.

— EVE (Ente Vasco de Energía).

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Goieki (Goierriko Garapen Agentzia).

— Goimen.

— Sociedad de Ciencias Aranzadi.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Grupo ecologista Ekologistak Martxan Gipuzkoa.

— Grupo ornitológico Itsas Enara.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Haritzalde Naturzaleen elkartea.

— ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).

— EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).

— Gipuzkoako Mendizale Federazioa.

EK\CV GAO-I-2025-05264

Era berean, dokumentazioa publiko egin da eta jendaurrean eskuragarri egon da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), herritar eta interesdun guztiek egoki iritzitako ingurumen arloko ekarpenak egin ahal izan ditzaten.

Ezarritako epea amaitu ondotik, eta txosten hau egin den egunera arte, erantzun hauek jaso dira aurkezturiko kontsultei loturik:

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi du, jasotako dokumentazioa aztertu ondotik, ez duela beharrezkotzat jotzen horri buruzko txostena egitea.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapeneko eta Lurralde Orekako Zerbitzuak uste du ez dagokiola berari aipatutako proiektuari buruzko txostena egitea, eremua Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialaren antolamendu eremutik kanpo geratzen baita.

— Landarlan, Parkea Bizirik Kukulunbera, Aralar Bizirik Plataformak, Kukubaso bertako basoak berreskuratzeko, eta Mutriku Natur Taldea elkarteek idatzi bera bidali dute, eta mozteko proiektua bertan behera uzteko eskatu dute, irizten baitiote inpaktu larriak eragin ditzakeela habitat eta espezie babestuetan.

Hasieran, eremuan ageri diren egonkortasun eta higadura arazoak azaltzen dituzte, eta adierazten dute horrek sedimentuak eremuko aldi baterako ibilguetara iristea erraz dezakeela –eta, haietatik barrena, baita iraunkorrak diren beste batzuetara ere, hala nola Amundarain errekara–. Garrantzitsua da erreka hori, habitat interesgarria baita babestutako bi ugaztunentzat: bisoi europarrarentzat eta muturluze piriniotarrarentzat, alegia.

Bestalde, adierazten dute ezen Aralarko Parke Naturaleko Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak (BNAP) proiektuaren eremu ia osoa babes eremuetan sartzen duela, eta, ildo horretan, gaineratzen dute aurkeztutako mozketa proiektuak urratu egiten duela zenbaitetan Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren araudia. Era berean, ez lituzke beteko Habitatei buruzko Zuzentaraua eta bisoi europarraren eta muturluze piriniotarraren kudeaketa planak ezartzen dituzten foru aginduak. Gainera, irizten diote ingurumen dokumentuak ez duela egiaztatzen proiektuak ez izatea inpaktu nabarmenik KBEko elementuetan –ez behintzat habitatei buruzko zuzentarauak eskatzen duen ziurtasun mailarekin–, eta adierazten dute ez dirudiela bateragarria espazioa kontserbatzeko helburuekin. Era berean, adierazten dute mozketak izango lukeela eraginik Batasunaren intereseko edo beste espezie babestuetan –bisoi europarraz eta muturluze piriniotarraz aparte, kiropteroetan, baita babestutako landaredi-espezie batzuetan ere, gorostietan eta haginetan, adibidez–. Beraz, baieztatzen dute ingurumen dokumentuak ez dituela aztertu horien gaineko inpaktu posibleak, edo ez behar beste, behinik behin.

— Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketara Egokitzeko Zuzendaritzak jakinarazi du, Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak ezartzen duen zonakatzeari jarraikiz, mozteko eremua bat datorrela gehienbat parkeko babes eremuarekin, eta, neurri txikiagoan, baso eta landazabaleko eremuekin. Ondorioz, bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, ezinbestekotzat jotzen du ingurumen dokumentu berri bat idaztea. Agiri horrek, indarrean dagoen araudiaren eskakizunek diotenari jarraikiz, aztertuko du mozteko proiektua bateragarria ote den Aralarko KBEaren kontserbazio helburuekin, bai eta espazioan aplikatzekoak diren erregulazioekin ere, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren eta 84/2016 Dekretuaren arabera.

— Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, jarduketa eremuan dago 24. elementua, Lazkoetxe baserria, zeinak babes ertaineko proposamena baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondarearen Zentroaren datu basean. Halaber, ingurumariotan dago –Zaldibiako udal mugartean– 11. elementua, Koa kobazuloa, ustezko zona arkeologikoa (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 221. zk., 97/11/18). Ondorioz, ezartzen du proiektuan bi elementuon egoera jaso beharko dela, bai eta haien babes proposamena islatu ere. Halaber, lanek eraginik izan badezakete 11. elementuan (Koa kobazuloa), hesi bat jarri beharko da sarreraren inguruan, hura babesteko.

Así mismo, la documentación ha sido anunciada y ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Administración Ambiental (www.gipuzkoaingurumena.eus) para que el público general y cualquier interesado pudiesen realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo establecido y hasta la fecha de emisión del informe, se han recibido las siguientes respuestas a las consultas efectuadas:

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco, señala que, una vez analizada la documentación, no considera necesario emitir informe al respecto.

— El Servicio de Desarrollo Rural y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa considera que no corresponde a dicho servicio emitir informe respecto al proyecto considerado dado que el ámbito queda fuera del ámbito de ordenación del PTS Agroforestal.

— Las asociaciones Landarlan, Parkea Bizirik Kukulunbera, Aralar Bizirik Plataformak, Kukubaso bertako basoak berreskuratzeko, y Mutriku Natur Taldea, remiten el mismo escrito, solicitando la suspensión del proyecto de corta por considerar que puede producir impactos severos sobre hábitats y especies protegidas.

Comienzan, poniendo de manifiesto los problemas de estabilidad y de erosión que se observan en el ámbito, lo que puede dar lugar a la llegada de sedimentos a los cauces temporales existentes en el ámbito y, a través de ellos, a otros permanentes como el arroyo Amundarain. Este arroyo es importante por ser un hábitat de interés para dos mamíferos protegidos: el visón europeo y el desmán del Pirineo.

Por otra parte, señalan que, el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (PORN) del Parque Natural de Aralar incluye la casi totalidad del ámbito del proyecto en las «Zonas de Protección» y especifican una serie de incumplimientos de la normativa del PORN por parte del proyecto de corta presentado. Asimismo, incumpliría la Directiva Hábitats y las ordenes forales en las que se establecen los planes de gestión del visón europeo y el desmán del Pirineo. Además, consideran que el documento ambiental no acredita con el grado de certidumbre que exige la Directiva de hábitats que el proyecto no causará efectos significativos sobre los elementos de la ZEC, ni que sea compatible con los objetivos de conservación del espacio y que la corta podría llegar a afectar a otras especies protegidas o de interés comunitario además del visón europeo y el desmán ibérico, tales como quirópteros y varias especies de vegetación protegidas como el acebo y el tejo. Por tanto, afirman que, el documento ambiental, no ha analizado o lo ha hecho de forma insuficiente los posibles impactos sobre los mismos.

— La Dirección de Patrimonio Natural y Adaptación al Cambio Climático del Gobierno Vasco informa que, de acuerdo con la zonificación que establece el PORN de Aralar, el ámbito de corta es coincidente, en su mayor parte, con la Zona de Protección del parque, y, en menor medida, con las zonas Forestal y de Campiña. En consecuencia, tras hacer un análisis de la documentación remitida, considera imprescindible que se redacte un nuevo documento ambiental que, de acuerdo a las exigencias de la normativa vigente, analice la compatibilidad del proyecto de corta con los objetivos de conservación de la ZEC de Aralar, así como con las regulaciones que son de aplicación en el espacio, de acuerdo al PORN y al Decreto 84/2016.

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco informa que, en el ámbito de actuación, se ubica el elemento 24. Caserío Lazkoetxe que tiene una propuesta de protección media en la base de datos del centro de la CAPV de Patrimonio Cultural Vasco. Asimismo, en las cercanías, en el término municipal de Zaldibia se ubica el elemento 11 Cueva de Koa, que es una Zona de Presunción Arqueológica (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 221, 18-11-97). En consecuencia, establece que se deberá recoger en el proyecto la situación de ambos elementos y reflejar su propuesta de protección. Asimismo, si los trabajos pueden llegar a afectar al elemento 11 Cueva de Koa, se colocará una valla alrededor de su entrada, para protegerlo.

EK\CV GAO-I-2025-05264

— URA Uraren Euskal Agentziak jakinarazi duenez, Lazkaoetxe jariatze urak zeharkatzen du eremua, zeinak Zaldibia ibaira isurtzen baititu urak 190 metro ingurura, jada eremutik kanpo. Iriztenn dionaren arabera, proiektuak bere eskumen esparruari loturik duen arrisku handiena urak uhertzea da, ibilgailuen joan-etorriak eta lur mugimenduek eraginda, bai eta euriteen ondorioz lurra herrestan eramatea ere, lurzorua agerian geratzen denean –inpaktu horrek landare estalki berriak lurzoru biluzia babestu arte iraungo luke–. Beraz, oso garrantzitsutzat jotzen du lur hezearekin lan ez egitea, herrestan eramandako solidoak eta partikula esekiak ahalik eta gutxien izateko. Gainera, jariatze urek ahalik eta lur gutxien eramateko, adarrak kentzean eta/edo sastrakak ebakitzean sortutako hondakinak kordoietan jarriko dira ahal den neurrian, eta, ahal dela, sestra kurbei jarraituko zaie eginkizun horretarako.

Bestalde, gogorarazten duenez, erreken zortasun eremuari dagokion 5 metroko zerrendan jardunez gero, eremu horretako helburuak ibaiertzeko basoa leheneratzea izan beharko luke. Era berean, zaindu beharreko eremu horretan baso autoktonoa berreskuratzea sustatuko da, ahal den neurrian. Intsusti hargunetik Lazkaomendiko depositurainoo doan hodiari dagokionez, egiaztatuko da ea hodia aurreikusitako mozketa eremutik edo haren ingurutik igarotzen den –kontuan izanik eremua zeharka dezakeela–, eta, hala baldin bada, kontu handiz jokatuko da ez eragiteko. Kalterik sortuz gero, konpondu eta berroneratu egin beharko da. Azkenik, ibilguen zainketa eremuan egiten denez jarduketa, beharrezkoa izango da Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena lortzea –Uraren Euskal Agentzian izapidetuko da baimen hori–.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazi duenez, Lazkaoetxe erreka hegoaldetik iparralderantz doa proiektuaren eremuan. Erreka horrek Zaldibia errekara isurtzen ditu urak, zeinak eremuarekin muga egiten baitu iparraldean. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak dioenari jarraikiz, Zaldibia erreka interes naturaleko tartetzat hartzen da, bai eta arriskuan dauden espezieen babes bereziko eremutzat ere (muturluze piriniotarra, kasurako). Halaber, sartuta dago Eremu Babestuen Erregistroan, Aralarko Parke Naturalean eta haren Kontserbazio Bereziko Eremuan baitago. Era berean, «hegoaldeko antiklinorioa» lurpeko ur masaren gainean dago, zeinaren ingurumen helburua baita 2021ean edo lehenago lortutako egoera kimiko eta kuantitatibo onari eustea. Ondoren, txostenak zenbait neurri prebentibo eta zuzentzaile ematen ditu, ingurumen elementu batzuen gaineko balizko inpaktuak saihesteko: lurrazaleko drainadura sarea eta jabari publiko hidraulikoa, lurrazaleko eta lurpeko uraren kalitatea, ibaiertzeko landaredia eta inguruan dauden ur bilketak. Azkenik, gogorarazten du jabari publiko hidraulikoan eta haren zortasun eta zaintza eremuetan edozein obra edo lan egiteko, lurrazaleko edo lurpeko uren aprobetxamenduetarako, eta urak zuzenean zein zeharka isurtzeko beharrezkoa izango dela lurraldearen eskumenekoa den arro erakundearen aldez aurreko administrazio baimena.

Organo sustatzaileari bidaliko zaizkio jasotako erantzun guztiak, bai eta txosten hau egin ondoren iristen diren gainerakoak ere, proiektua egiterakoan eta izapidetzean kontuan har ditzan.

*3. 21/2013 Legearen III. eranskinean ezarritako irizpideen araberako azterketa.*

* Proiektuaren ezaugarriak.

Ebaluatutako proiektua da Lazkao udalerrian kokaturiko 008. poligonoko 139. lurzatiko intsinis pinudia moztea. Lursailaren azalera osoa 53,18 ha da, baina jarduketak 25,86 ha hartuko ditu.

Ingurumen dokumentuan, 3 aukera planteatzen dira: 0 (arrasean moztea), 1 (bakantze bidez berroneratzea ondoz ondo), eta 2 (2 txandatan arrasean moztuta berroneratzea). Dokumentuak ondorioztatzen du 1. eta 2. aukerak bideraezinak direla, zenbait

— La Agencia Vasca del Agua URA informa que, el ámbito es atravesado por la escorrentía Lazkaoetxe, tributaria al río Zaldibia, el cual discurre, fuera del ámbito, a unos 190 metros del mismo. Considera que el mayor riesgo del proyecto respecto a su ámbito competencial proviene del enturbiamiento de las aguas ocasionado por el trasiego de vehículos y movimientos de tierras, así como el arrastre de tierras debido a las lluvias, cuando el suelo quede expuesto, impacto que persistirá hasta que la una nueva cubierta vegetal proteja el suelo desnudo. Por tanto, considera muy relevante no trabajar con terreno húmedo, con el objetivo de minimizar la generación de arrastres de sólidos y partículas en suspensión. Además, con la finalidad de reducir dichos posibles arrastres por escorrentía, los restos procedentes del desrame y/o desbroce se dispondrán en la medida de lo posible en cordones siguiendo preferentemente las curvas de nivel.

Por otra parte, recuerda que, en caso de actuar en la franja de 5 metros correspondiente a la zona de servidumbre de los arroyos, el objetivo en dicha zona debería ser la regeneración del bosque ripario. Asimismo, en la zona de policía y en la medida de lo posible, se promoverá la recuperación del bosque autóctono. En cuanto a la tubería que va desde la toma Intsusti hasta el depósito de Lazkaomendi que puede atravesar el ámbito, se comprobará si la misma discurre por la zona de corta prevista o en sus inmediaciones y, en tal caso, se extremarán las precauciones para no afectarla y, si finalmente se generarán afecciones, será preciso la reparación y recuperación de la misma. Finalmente, dado que la actuación se realiza en zona de policía de cauces, será preciso obtener la preceptiva autorización de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico, la cual se tramitará en la Agencia Vasca del Agua.

— La Confederación Hidrográfica del Cantábrico, informa que el ámbito del proyecto discurre de sur a norte el arroyo Lazkaoetxe, tributario del río Zaldibia, el cual limita con el ámbito por el norte. De acuerdo con el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, el río Zaldibia está considerado como tramo de interés natural y como zona de protección especial de especies amenazadas (desmán de Pirineo). Asimismo, el ámbito está incluido en el Registro de Zonas Protegidas por encontrarse en el ZEC y Parque Natural de Aralar. También se sitúa sobre la masa de agua subterránea «Anticlinorio Sur», cuyo objetivo medioambiental es mantener el buen estado químico y cuantitativo alcanzado en 2021 o antes. A continuación, el informe aporta un conjunto de medidas preventivas y correctoras de cara a evitar los impactos potenciales sobre una serie de elementos ambientales: la red de drenaje superficial y el dominio público hidráulico, la calidad del agua superficial y subterránea, la vegetación de ribera y las captaciones existentes en la zona. Finalmente, recuerda que, cualquier obra o trabajo en el dominio público hidráulico y sus zonas de servidumbre y de policía, los aprovechamientos de aguas superficiales o subterráneas, así como el vertido directo indirecto de las aguas requerirán autorización administrativa previa del Organismo de cuenca en el ámbito territorial de su competencia.

Todas las respuestas recibidas, y las que lleguen de forma posterior a la emisión de este informe, serán remitidas al órgano promotor a fin de que, en su caso, sean tenidas en cuenta en la elaboración y tramitación del proyecto.

*3. Análisis en base a los criterios establecidos en el anexo III de la Ley 21/2013.*

* Características del Proyecto.

El proyecto evaluado consiste en la corta de las masas forestales de pino radiata existentes en la parcela 139 del polígono 008 situada en el Término Municipal de Lazkao. La superficie total de la parcela alcanza las 53,18 ha, pero la actuación se desarrollará sobre 25,86 ha.

En el documento ambiental, se plantean 3 alternativas: la 0 (Matarrasa), la 1 (regeneración por aclareo sucesivo), la 2 (regeneración mediante corta a hecho en 2 tiempos). El documento concluye que las alternativas 1 y 2 son inviables debido a dife-

EK|CV GAO-I-2025-05264

eragozpen direla eta, besteak beste, ustiatu beharreko espezieak argia behar duela. Horrek bilakaera arazo larriak eragingo lituzke eremu berroneratuetan. Beraz, 0 aukeraren alde egiten da. Era berean, uko egiten zaio jarduketarik ez egiteari, esku hartu beharreko pinudi masaren osasun egoera dela eta.

Ebaketa arrasean moztuta egingo da, hau da, baso masa horretan dauden intsinis pinu guztiak aterako dira, banda marroiaren gaitzak larriki eraginda baitaude, begien bistan dauden zeinuen arabera. Pinudiak 22 urte ditu.

Funtsean, lan hauek egingo dira: zuhaitzak ipurditik ebakitzea, kargatzeko tokira ateratzea, zura prozesatzea, parkera garraiatzea eta, handik, zura eraldatzeko industriara, harrobi zerrategietara edo paper fabriketara eramatea.

Zuhaitzak eskuz moztuko dira ipurditik, motozerra bidez. Mozketa horiek modu kontrolatuan eta gidatuan egingo dira, eta, hala, saihestu egingo da etorkizuneko gainerako landarediak kalterik izatea ahal den kasu gehienetan, haiek ez baitira ebaki edo ipurditik moztu behar.

Pinuak ateratzeko, skkider edo baso arrastatzailea erabiliko da, edo autokargatzailea, harik eta pistara edo egur parkera eraman arte. Hortik aurrera, zura prozesatu ondoren, erabat esekita eramango da kargatzeko tokietara, autokargatzailearekin edo baso kamioiarekin. Erabili beharreko pistak lurrezkoak dira eta, kasu batzuetan, harria edukiko dute gaineratuta. Irizten da egungo pista sarea nahikoa dela basoa ustiatzeko lanetarako. Hori dela eta, ez da zabalduko pista berririk, nahiz eta gomendagarria den lehendik daudenak konpontzea edo berrikustea. Errepaso hori egiteko, lurrak ahalik eta gutxien mugituko dira, eta barnean hartuko ditu drainatze elementuak egokitzeko lanak, hala nola arekak eta ur ebaketak egitekoak.

Zura prozesatzeko –produktuak hautatzeko eta ebakitzeko–, kargatzeko tokia edo egur parkea erabiliko da. Eskuz egingo da, motozerrarekin edo baso prozesagailu homologatuarekin. Lan hori mendiaren beraren barruko pista batzuetan egingo da, edo, bestela, mendian bertan pisten ondoan barneko parke gisa gaituta dauden eremuetan.

Parkera esekita garraiatuko da, autokargatzailearekin eta/edo 6X6 baso kamioiarekin. Menditik atera ondoren, egurra pista nagusi batetik barrena garraiatuko da Lazkaoetxe baserria dagoen lekuraino. Handik, Zaldibiarako errepidera irtengo da, Aiesteran Erreka auzotik barrena, eta, azkenik, A-1 errepidera.

Dokumentuak adierazten duenez, baso aprobetxamenduaren ondoren, lurzatiaren jabeak basoberritu egin nahi du jabetza, eta espezie autoktonoak sartu, hala nola Quercus robur eta Quercus petraea. Hala, mendiak utzi egingo dio ekoizpen bokazio hutsa izateari, eta batez ere babesera bideratua izango da. Hori horrela, mosaiko bat osatuko du: batetik, hostozabalen espezie autoktonoak eta, bestetik, Douglas izeiaren unada. Azken hori, berebat, ordeztu egin nahi da arian-arian, Pro Silva bakantzeak egitearen bidez.

* Egikaritze eremuaren ingurumen sentikortasuna.

Bota beharreko pinudia lurzati pribatu batean dago (Lazkaoko 008. poligonoko 139. lurzatia). Lurzatiak 26 ha inguru ditu, eta Aralar Parke Naturalaren barruan eta Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) dago. Horrenbestez, aplikatzekoak dira bai Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana (168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa), bai Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duen maiatzaren 31ko 84/2016 Dekretuan onetsitako arauak.

Lurzatia ipar-ekialdera eta ipar-mendebaldera begira dago nagusiki, 224 eta 480 metro arteko altitudean, eta malda handiak ditu, % 30etik % 100era bitartekoak.

rentes inconvenientes, entre los que se cita, la necesidad de luz de la especie a explotar lo que ocasionaría serios problemas de evolución de las zonas regeneradas. Por tanto, se opta por la alternativa 0. Asimismo, se rechaza la alternativa de no realizar ninguna actuación debido al estado sanitario en el que se encuentra la masa sobre la que se va a actuar.

La corta se realizará «a hecho» o matarrasa, es decir, extrayendo todos los pies de pino radiata presentes en la masa, ya que se encuentran afectados de manera severa por la enfermedad de la banda marrón según los signos que se pueden apreciar. La edad de la misma es de 22 años.

Los trabajos consisten básicamente en el apeo del arbolado, la saca a cargadero, el procesado de la madera, el transporte al parque y de ahí, hasta la industria de transformación de la madera o aserraderos de canter o papeleras.

El apeo del arbolado se realizará de forma manual mediante motosierra. El corte se hará de tal manera que la caída de los mismos sea de manera controlada y dirigida, de esta forma se evitarán, en el mayor de los casos posibles, que el resto de la vegetación de futuro, que no es objeto de tala o apeo sufra daño.

La saca se realizará con skkider/arrastrador forestal o autocargador, de manera semisuspendida, hasta la pista o parque de madera. Desde aquí, una vez procesada la madera, se trasladará de manera totalmente suspendida, hasta los cargaderos con autocargador o camión forestal. Las pistas a emplear son de tierra y, en algunos casos, con piedra aportada. Se considera que la red de pistas existentes es suficiente para realizar los trabajos de explotación forestal, por lo que no se llevará a cabo la apertura de nuevas pistas, aunque se aconseja efectuar el arreglo o repaso de las pistas existentes. Este repaso se realizará de manera que produzca el menor movimiento de tierras y contemplará la adecuación de los elementos de drenaje tales como cunetas y cortes de agua.

El procesado de la madera-selección de productos y corte-se realizará en el cargadero o parque de madera. Se desarrollará manualmente con motosierra o con procesadora forestal homologada. Este trabajo se realizará en algunas de las pistas internas del propio monte o zonas, junto a las pistas, habilitadas en el mismo monte como parque interno.

El transporte al parque se realizará de manera suspendida, con autocargador y/o camión forestal 6X6. Una vez fuera del monte, el transporte de la madera se realizará a través de una pista principal hasta la zona donde se ubica el caserío de nombre Lazkaoetxe. Desde ahí por la carretera a Zaldibia, por el barrio Aiesteran Erreka y, finalmente hasta la A-1.

El documento indica que, posteriormente al aprovechamiento forestal, el propietario de la parcela pretende reforestar la propiedad con especies autóctonas tales como Quercus robur y Quercus petraea, de manera que el monte deje de tener una vocación exclusivamente productiva, para pasar a una vocación principalmente protectora. Creará así un monte compuesto por un mosaico que combine especies autóctonas de frondosas con el rodal de abeto de Douglas existente. Este rodal se pretende, a su vez, sustituirlo progresivamente mediante la realización de claras Pro-silva.

* Sensibilidad ambiental del ámbito de ejecución.

La corta se plantea en una parcela privada (parcela 139 del polígono 008 de Lazkao), de aproximadamente 26 ha, ubicada en el interior del Parque Natural de Aralar y en la Zona Especial de Conservación (ZEC) Aralar (ES2120011), por lo que son de aplicación tanto el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (PORN) de Aralar (Decreto 168/1994, de 26 de abril), como las Normas de Conservación del espacio aprobadas en el Decreto 84/2016, de 31 de mayo, por el que se designa Aralar (ES2120011) Zona Especial de Conservación.

La parcela, se encuentra principalmente orientada al Noreste y Noroeste, entre los 224 y 480 metros de altitud y presenta pendientes altas, que van del 30 al 100 %.

EK\CV GAO-I-2025-05264

Litologikoki, kareharri tupatsuak, kareharrizko tuparriak eta kalkarenitak ageri dira txandaka lurzoruan. Iragazkortasuna txikia da pitzaduragatik.

Lazkaoetxe jariatze urak zeharkatzen du eremua hegoaldetik iparraldera (1,05 km²), eta Zaldibia errekara isurtzen ditu urak. Ibai hori mozketa eremutik kanpo igarotzen da, 190 metro ingurura. Proiektua gauzatzearen ondorioz, hain justu, gerta liteke eraginik izatea erreka horretan. 2023ko laginketa kanpainan, Zaldibia errekak egoera ekologiko moderatua du, ziprinidoen espezieak baitira nagusi –izokin espezieen gainetik–, baina 2019-2023 aldi osoa hartzen badugu, ontzat jo daiteke haren egoera biologikoa. Egoera kimikoari dagokionez, ontzat ematen da bai 2023rako, bai 2019-2023 aldirako. Zaldibia erreka jasota dago Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroan (ingurumen intereseko erreka zatia, interes bereziko eremu gisa bisoi europarrarentzat eta muturluze piriniotarrarentzat, Natura 2000 eta EAEko Naturagune Babestuen Sarean).

Ikuspegi hidrogeologikotik, «hegoaldeko antiklinorioa» lurpeko ur masaren eremuan dago aztergai dugun eremua, eta oso kalteberatasun txikia du akuiferoak kutsatzeari dagokionez.

Lurzatiaren egungo landaredi osoa harturik, espezie hauek ageri dira batez ere: gaur egun moztu nahi diren Pinus radiata landaketak, baso atlantiko mistoa, Quercus robur espeziea (espezie nagusia) eta laritza. Era berean, ingurumen dokumentuak intsinis pinuaren masa nagusiaren barruan hostozabalen basoak daudela nabarmentzen du, bai eta lizarrak, haltzak eta haritz kandudunak ere, haranaren hondoko ur-ibilguaren barruan. Bestalde, lurzatiaren barruan baina mozketa eremutik kanpo, Batasunaren intereseko bi habitat mota daude: batetik, 6210 Brachypodium pinnatum duten larre mesofiloak, eta, bestetik, 6510 Altitude baxuko sega belardi elkorrak.

Fauna komunitate nagusia, ingurumen dokumentuaren arabera, konifero masei loturikoa da, hala nola apo arrunta, zapelatz arrunta, txantxangorria, azeri arrunta eta abar. Hala ere, kontuan izan behar da moztu beharreko lurzatia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren testuinguruan fauna balio handia duen naturagune batean dagoela, eta, beraz, katalogatutako edo Batasunaren intereseko zenbait fauna espezieren larreratze edo elikatze eremuan egon daitekeela. Guztira, 201 espezie ornodun hauteman dira (Aralar Parke Naturaleko ornodunen fauna azterketaren arabera, 1997. urtekoa, Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzeko dokumentuan aipatua), eta, horien artean, 50 ugaztun espezie, 127 hegazti espezie –horietako 19 Hegaztien Zuzentarauaren I. eranskinean daude sartuta–, 10 narrasti espezie, 8 anfibio espezie eta beste 6 arrain espezie. Habitatei buruzko Zuzentarauaren II. eranskinean jasotakoetatik 19 espezie ageri dira; horietatik bederatzi ugaztunak dira, bat arraina, eta bederatzi ornogabeak. 58 espezie daude EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan sartuta, eta, KBEa aitortzeko dokumentuak adierazten duenez, garrantzitsuenak baso helduei lotuta daude. Era berean, kontuan hartu behar da Zaldibia erreka, lehen esan bezala, pinua bota beharreko eremutik kanpo dagoela baina gerta litekeela jarduera horrek eragitea. Bat dator, hain justu, bi espezierentzat interes berezia duten eremuekin: batetik, bisoi europarra (Mustela lutreola) eta, bestetik, muturluze piriniotarra (Galemys pyrenaicus). Biak ala biak «galzorian» daude katalogatuta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan, eta kudeaketa plan espezifikoak dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Azkenik, eremua belatz handiarentzako puntu kritiko baten barruan dago.

Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) funtsezko elementu edo kontserbazio xede gisa definitzen ditu basoak (pagadiak, hariztiak eta artadiak), haltzadi kantauriarrak, larreak eta belar formazioak, flora eta faunaren komunitate errupikolak eta kiropteroak.

Paisaiari dagokionez, EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren aurreproiektuan jasotako kartografiak jasotzen duenez, proiektuak ukituriko eremua Asensietako ikus-arroan dago,

Litológicamente, se distinguen suelos compuestos por una alternancia de margocalizas, margas calizas y calcarenitas. La permeabilidad es baja por fisuración.

El ámbito es atravesado de sur a norte por la escorrentía Lazkaoetxe (1,05 km²), tributaria al río Zaldibia, el cual discurre fuera del ámbito de corta, a unos 190 metros del mismo. Será precisamente este río el que puede verse afectado por la ejecución del proyecto. En la campaña de muestreo de 2023, el rio Zaldibia presenta un estado ecológico moderado por el dominio de las especies ciprinícolas sobre las salmonícolas, aunque si cogemos todo el periodo 2019-2023, su estado biológico se califica como de bueno. En cuanto al estado químico, tanto para 2023 como para el periodo 2019-2023, se califica de bueno. El rio Zaldibia está incluido en el Registro de zonas protegidas del Plan Hidrológico como Tramo de río de interés medioambiental, área de interés especial para el visón europeo y el desmán del Pirineo, Natura 2000 y Red de Espacios Naturales Protegidos de la CAPV.

Desde el punto de vista hidrogeológico, el ámbito de estudio se ubica en el ámbito de la masa de agua subterránea «Anticlinorio Sur» y, presenta una muy baja vulnerabilidad a la contaminación de los acuíferos.

En cuanto a la vegetación actual total de la parcela, nos encontramos, principalmente, con las plantaciones de Pinus radiata que ahora se quieren talar, bosque atlántico mixto con el Quercus robur como especie principal y alerce. Asimismo, el documento ambiental, destaca la presencia de bosques de frondosas dentro de la masa principal de pino radiata, así como la presencia de fresnos, alisos, y roble pedunculado en el curso de agua situado en el fondo del valle. Por otra parte, dentro de la parcela, pero fuera de la zona de corta, existen dos tipos de hábitats de interés comunitario: 6210 Prados mesófilos con Brachypodium pinnatum y 6510 Prados de siega de baja altitud.

